



Gazteen parte hartzea sustatzeko bilera sorta abiatu da Andoainen

Xoxokako jaiei asteburu honetan jarraipena emango diote



Agotetarren idiek 53 plaza egin zituzten 20 minutuan, 550 kiloko harriarekin.



Elolaren idi pareak 49 plaza egin zituen.

Sega apustua, bertso afaria edota sagardo dastaketa Xoxokako plazan jarri duten karpan, asteburuan.

Astehenean hasiera eman zioten goiburuarrek aurtengo Xoxokako jaiei, herrikirol lehiarekin eta dagoeneko tradizio bihurtzen

ari den Jexux Mari Irazu eta Amets Arzallusen bertso saioarekin. Astearte arratsaldean idi proba izan zen, Egues eta Portxeta baserriko idien artean. Azken hauek irabazi zuten, Jose

Luis Agote aita-semeak itzain lanetan zirela. Mikel Garaialde eta Joseba Larrea gazteak Egues baserriko Jose Mari Elolaren idi parearekin aritu ziren.

[AGENDA, 12. ORRIALDEA]



Juan Lopez de Munain.

Erretegiko ateak itxi dituzte

Goiburuko San Esteban erretegiak aurreko igandean itxi zituen bere ateak, 41 urteko ibilbideari agur esanez. Merzitako atsedena hartuko du Juan eta Mari Karmen senar-emazteak.

[ANDOAIN, 12. ORRIALDEA]

Urnietarrek San Juan plazaren etorkizuna erabakiko dute egunotan



Urnietako plaza nagusiaren etorkizuna argazkiaren parekoa edo antzekoa izan daiteke. Eta diseinu zehatza erabakitze-ko herritarrek hitza emateko aukera izango dute ostegun honetatik larunbatera bitarte. Bertan bulegoetan hamasei urtetik gorako urnietarrek botoa eman ahal izango dute, hiru aukera ezberdinen artean. Egun hauetan Kontsejupean edota Lekaion hiru proiektuak

ezagutzeko aukera izan da, panel eta irudien bitartez. Larunbat iluntzean boto zenbaketari ekin eta orduan bertan emango dute irabazlearen berri.

Azken erabakia hartzeko Olatz Alonso, Albert Fuentes eta Jon Ugalde arkitektoen egitasmo bana aukeratu dute.

Etorkizuneko San Juan plaza oinezkoentzat izango da erabat.

[URNIETA, 2. ORRIALDEA]

Bosko Anitz taldearen ate irekiera

Bosko Anitz taldearen ate irekiera ekitaldia, 25. urterrenoko ekitaldien abiapuntu gisa: antzerkia, dantza, eskulanak. Larunbatean Urnietako Salesiarren Bosko Anitzeko lokalean.

[ANDOAIN, 12. ORRIALDEA]

Mundua bizikletan



Pelikula-hitzaldia

Urriak 15, asteazkena

19:00 Sarobe. (61min.)

Gaztelania

Emailak:

Andoni, Alice

www.mundubicyclette.be



Urnietako Udala



GaztegunUrniet



Idiazabal, 13 / behea
20130 Urnieta (Gipuzkoa)
Tel.: 943 333 973
gazteinformazioa@urnieta.org

Bisitaldia omenduari



Udal ordezkariak omenaldiaren plaka eman zioten Hiazintori.

Udalak Sanmieletan omenaldi ekitaldia antolatu zuen irailaren 29an. Omenduen artean Hiazinto Fernandorena zegoen. Ekitaldira senitartekoak hurbildu ziren,

Hiazinto Andoaingo San Juan Bataiatzailea etxean bizi baita. Biharamunean, Udal ordezkariak bisita egin zioten Hiazintori, omenaldi ekitaldiko plaka ematera.

Margo lehiaketako onenak



Ezker eskuin, Piedad Santamaria bigarren saritua, Jon Jauregi Urnietako lehen saritua eta Lucio Fernandez aurtengo lehiaketako irabazlea.

Sanmieletan pintura lehiaketaren hamazortzigarren edizioa burutu zen eta irabazlea Lucio Fernandez izan zen. Haren atzetik, **Piedad Santa-**

maria bigarren saria eskuratu zuten. Urnietarren artean, onena **Xabier Leteren** erretratua egin zuen **Jon Jauregi** izan zen.

Bosko Anitz zuri gorritz



Sanmielak-Sanferminak lehian parte hartu zuten gazteak.

Sanmieletan Bosko Anitz aisialdi taldeak Sanmielak-Sanferminak lehian antolatu zuen. Egunarekin ondo baino ho-

betu asmatu zuten, San Fermin giroko eguraldia egin baitzuen irailaren 27an. Entzierroa eta guzti egin zuten.

Ehiza postuen zozketa

Santa Krutz elkarteak zozketa bikoitza egingo du asteburuan: Urriaren 10ean Otsolepoko ehiza postuen zozke-

ta, biharamunean ehizatze-ko. Urriaren 11n Xoxokako ehiza postuen zozketa, egunean bertan ehizatze-ko.

Larunbat gauean bertan adieraziko dute bozketaren emaitza

San Juan plazaren itxura berria aukeratzeko garaia



Etorkizuneko plaza eraikitzeko hiru egitasmo ezberdinen artean bozkatzeko aukera dago egun hauetan.



1. aukera
Olatz Alonso.



2. aukera
Albert Fuentes.



3. aukera
Jon Ugalde.

San Juan plaza oinezko bilakatzeko prozesuan, plazaren baitan hainbat eraldaketa burutu dira azken urteotan, udaletxearen aurrealdean bereziki. Laster aldaketa handiagoak egingo dituzte, eta horretarako lehiaketa deitu dute. Hautagai guztien artean, hiru arkitektoen lanak aukeratu dituzte. Azken aukeraketa, ordea, herritarrei dagokie.

Ostegun honetan hasi eta larunbata bitarte –urriaren 9an,

10ean eta 11n– Urnietan errolatuta dauden hamasei urtetik gorako herritarrek hiru aukeren artean proposamen baten alde egiteko aukera izango dute, Bertan herritarren arreta bulegoan. Ordutegia honakoa izango da, goizeko 09:00etatik 14:00etara eta arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara. Larunbat iluntzean bertan bozkek zenbatzeari ekin eta hortxe bertan irabazlearen berri emango dute.

Urnietako Udalak San Juan plaza eraberritzeko lehiaketa zabaldu zuen, irizpide zehatzak ezarriz. Gune atsegina izatea lehenetsiz, autorik gabekoa izango da. Oinezkoek izango dute lehentasuna eta pleguetan zehatz-mehatz eskatu dute etorkizuneko plazak lotura zuzena izan behar duela inguruko interes gunee-kin. Alegia, Lekaiorekin, Geltoki kalearekin edota Lourdes Iriondo jolastokiarekin.



Sanmielak 2014

Aiurri.com gunean

MIELAREN IRITSIERA
BATUKADA ETA FUNKY SAIOA
DANTZA SOKA
URDANBOR
TALO JATEA
URNIETAR PRESTU
UDAL OMENALDIA
MIELAREN AGURRA
URRACAKO JAIA
AZKEN EGUNA



3.
FASEAwww.garraioahobetzen.net

Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua



Informazio gehiago:
www.garraioahobetzen.net

GIPUZKOAKO AUTOBUS ZERBITZU BERRIA EZAGUTU NAHI?

4.000 herritar baino gehiagok egindako ekarpenak kontuan hartuta,
Gipuzkoako Foru Aldundiak autobus zerbitzu berria jarriko du martxan 2015ean.
Zerbitzu berriak ezagutzeko, zatoz zure eskualdean egingo den bilerara:

**Urriak 22, Hernanin,
Biteri kultur etxean, 18:30ean**

SANMIELAK URNIETAN

Egun handia Urracan

Sanmielei jarripena emanez, festa giroko asteburua igaro dute Urnietan, hamaika hitzordu izan baitituzte bai larunbatean baita igandean ere.

Jaietako bigarren asteburuan Urracako auzotarrek egun osoko ospakizuna antolatu zuten. Hura da auzuneko egun handia, eta nabarmena zen haien artean zegoen giro ederra.

Urracako auzotarrek egun osoko festa egin zuten auzoan. Toka eta bote txalpelketarekin hasi zuten larunbata eta eguerdian, paella jatea izan zuten bazkaltzeko. Auzotar ugari bildu zen mahai inguruan eta musikarekin bazkalondo umoretsu eta dantzagarria igaro zuten. Haurrek ere izan zuten zer gozatu, izan ere, apar festan ibili ziren jolasean. Berorik ez zuen egin, baina arropa kentzera ere ausartu ziren. Ekintza berritzailea izanda, oso gustura ibili ziren urnietarrak. Ondoren, kaldereteak eta disko-festak eman zieten amaiera jai egunari.

Egun berean, Egapen futbolin erraldoi txapelketa antolatu zuten Trikiti taldekoek. Sei pertsonako taldetan futbol zelai puzgarri batera sartu, eskuak barra bati lotu eta futbolinean bezala, ezker-eskuin mugituz eta hankei eraginez jokatu zuten. Giro ederra sortu zen.



Bazkaria eta apar festa, aurreko larunbateko ekitaldi nabarmenenak Urracan.



Bazkarian auzotar ugari bildu zen. Horietaiko batzuk dantza egiteko aukera baliatu zuten.



Apar festak auzoko gaztetxo asko erakarri zituen.



Bazkariako koadrila festazalea.



Trikiti taldeak larunbat arratsaldean futbolin partidak antolatu zituen Egape ikastolako jolastokian.

SANMIELAK URNIETAN

Amaiera jendetsua aurtengo jaiei

San Juan plaza jendez gainezka zegoen igande iluntzean, jaietako azken egunean. Arratsaldean atertu zuen, herri kirolen erakustaldirako hain justu. Minutuak aurrera egin ahala ehunka herritar

hurbildu zen plaza inguruko postuetara. Aukera zabala zen: sagardoa, txekor jatea, urdaiazpikoa, gozoak,... Errosarioko amabirjinaren ospakizunarekin amaitu dira aurtengo Sanmielak.

O rion euskararen aldeko Kilometroak jaia ospatzen ari zen bitartean, Urnietan herriko jaiei amaiera ematen ari ziren. Bietan ere, Orion eta Urnietan, goizetik zeruari begira izan ziren. Eta zorionez euriak ez zuen arratsaldea zapuztu. Urnietan, zehazki, amaierarik politena eman zioten jaiari: San Juan plaza jendez beterik. Sagardoa, herri kirolak, txekor jatea..., egitarau aski ezaguna errotutako tradizioaren parekoa da. Egan plazan zuzenean aritzearen parekoa. Eta erre-pikatzeko horrek egiten du erakargarri jaia. Zertarako aldatu bere horretan erantzun bikaina jasotzen duen egitaraua. Jaietako bigarren igandea beste behin ere Urnietako eta ingurueta herriar askoren bilgune izan zen.

Herri kirol erakustaldian bildu zen jende kopuruak igande arratsalde arrakastatsua iragartzen zuen. Betiko eskaintza osatzeko bertan moztzen ari ziren urdaiazpikoaz edota erroskilaz eta opiltxoek gozatzeko aukera zegoen. Den-dena, plazan. Bapo jarri arte, jai giroan.



Igande iluntzean jendetza bildu zen San Juan plazan.

Argazki gehiago: Aiurri.com



AUZOAN BIZI DIREN GAZTE ETORKINEN INTEGRAZIOA SUSTATZEKO EGITASMO BERRITZAILEA

Ortzadar proiektua, Sorabillako Harrera Etxean

Gizarte bazterketa jasateko arriskuan diren gazteen alde ari da lanean aspalditik Caritas elkarteak Sorabillako erretoretxean. Irailaren hasieran, auzoko jaietan, “Ate irekiak” eguna antolatu zuten

arduradunek, eta bertan garatu den Ortzadar proiektua aurkeztu. Iñigo Lasagabaster hezitzaileak azaldu digu Harrera Etxe horren funtzionamendua.

Zer da Ortzadar egitasmoa?

Iñigo Lasagabaster: Erretoretxeko belardia txukundu eta erabilgarri uztea izan dugu helburu. Horretarako, etxean bertan bizi diren gazteek egundoko lana egin dute urtean zehar. Izan ere, erabat utzita zegoen lur zati hori; era guztietako hondakinak pilatzen ziren bertan. Elektrizitate eta ur instalakuntza egin, zuhaitzak kimatu, margotze lanak egin, baratzea antolatu... Horretarako, esan behar da oinarritzkoa izan dela Andoainen dauzkagun laguntzaile ezberdinek eskaini diguten laguntza, nork bere arlotik.

Etorkizunean, Ortzadar proiektuari jarraipena emateko erronka bikoitza jarri dugu martxan: batetik, belardia auzotarrentzat eta herritarrentzat irekia dagoela jakinaraztea, eta bestetik etxeko kide guztiak bizilagun horiengana guztienagana irekitzea. Bigarren erronkan jarri nahi dugu indarra, batez ere; izan ere, etxe honetako guztiak ere andoaindarrak baldin bagara, eta hala gara, zergatik ez eduki harremanik naturalenak gainerako andoaindarrekin?

Garrantzi handia eman diozue Ortzadar egitasmoari. Nola baloratzen duzu egindakoa?

I.L.: Harrera Etxekoak ohar-tzen gara zenbateko balioa daukan bertako gazteak jarduera batean murgildu izana, eta Andoaingo herritarrei zerbait eskaintzeko prestutasuna agertu izana. Izan ere, orain hiruzpalau urte bertako hezitzaileok gogoeta prozesua ireki genuenean, Sorabillako etxean bizi diren gazteak axolagabekeria bizi direla ohartu ginen, ez daukatela motibaziorik, porrotaren sentsazioan bizi direla, autoestima ezarekin... Horrek guztiak, besteak beste, diziplina arazoak ere eragin izan dizkio etxeko martxari.

Jarrera horretan eragin handia dauka, nola ez, bizi dugun krisiak. Izan ere, krisiaren au-



Ahmed, Iñigo Lasagabaster (hezitzailea), Manolo Oiarzabal (Sorabillako erretorea), Bernard, Ismail eta Abdelhalim.

rretik, gazte horiek lan munduan txertatzeko aukera handiak eduki ohi zituzten lantegietan praktikak egin ostean. Orain, ez lanik, ez praktikarik ezta ikastarorik ez da sortzen horientzat. Gazte emigrante hauentzat gero eta baldintza gogorragoak ipintzen zaizkie.

Ate irekiak jardunaldia antolatu zenuten Sorabillako jaietan...

I.L.: Pozik gaude herriko jende dezente etorri zelako. Kolaboratzaileez gain, etxe honen martxa ezagutzeko interesa daukaten hainbat hurbildu

zen. Bertako gazteek harro erakutsi zieten hilabeteetan egindako lana, eta hezitzaileok ere aukera eduki genuen Harrera Etxea zer den azaltzeko.

Eta zein da, bada, Harrera Etxearen funtsa?

I.L.: Caritas elkarteak gidatzen du egitasmoa, eta diputazioarekin hitzarmena sintatuta dauka. Gizarte bazterketa jasateko arriskuan dauden 18-25 urte bitarteko gazteak hartzen ditu etxeak. Berdin dio pape-
rak eduki ala ez, nazionala izan ala ez.... Oinarritzko bizi-

baldintzak eskaintzen zaizkie (aterpean bizitzeko aukera, baliabide ekonomikoak...), eta hezitzaileok gertutik jarraipen bat egiten diegu, hainbat alderdiri begira: lan formakuntza, harreman sozialak, gabezia afektiboak, ohiturak... Denbora jakin batean (urte eta erdi-bi urtetan) normaltasunez gizarteratu daitezen da azken helburua. Egun, hamar lagun bizi dira Sorabillako erretoretxean; mutilak eta emigranteak dira denak ere.

Ibilbide luzeko egitasmoa da haxe, eta eskarmentuak esaten digu, gutxi gorabehera, %80ak arrakasta lortu ohi duela.

Jardinaren espazioa ez ezik zuek ere auzora eta herrira ireki nahi duzuela adierazi duzu, etorkizunerako erronka nagusi gisa...

I.L.: Ana Carrere alkateak esan izan digun bezala, gu ere andoaindarrak gara eta halaxe jokatu behar dugu. Autokritika eginez, aitortu behar dugu nahiko itxita bizi izan garela orain arte Sorabillako etxe honetan.

Belardiari dagokionez, nahi duten pertsonen topaleku bilaka daiteke, eta era guztietako ekintzak antolatu bertan. Baina espazio zehatz horretatik urrunago begira jarritz gero,

“Prest gaudela auzoaren bizitzan parte aktiboa izateko; harrera beroa jaso dugu, eta pozik gaude”
Iñigo Lasagabaster

sorabilatarrekin eta andoaindarrekin orain arte eduki ez dugun harremanak eduki nahi genituzke. Orain arte, auzoko elkartearekin eta jai batzordearekin eduki ditugu harremanak. Gure asmoak zein diren jakinarazi diegu; hots, prest gaudela auzoaren bizitzan parte aktiboa izateko; jaien antolaketan parte hartzeko, auzoan konposta komunitarioa irekitzeko eta kudeatzeko, auzoko belardiak eta zuhaitzak zaintzeko... Harrera beroa jaso dugu, eta pozik gaude.

Elkar ezagutzeko kultura falta zaigu guztioi ere, hemen bizi garenoei ez ezik kanpotik datozenei ere bai...

IL.: Hala da. Hemengotarren artean emigrazioaren inguruko aurreiritzi ugari dagoen bezala, mutilak ere ez dira libratzen gaitz horretatik! Pertsona zintzoak dira, baina kale gorrian bizitzera kondenatuta egon dira bolada batean, eta etxe honetara etortzen direnean ere, iraganaren zamarekin bizi behar dute: agindu judizialak heltzen zaizkie, “moro guztiak berdinak zarete” eta hortik aurreragoko komentario iraingarriak entzuten jarraitzen dute...

Dagoeneko Sorabillako auzotarrena eta taldeetakoa ez ezik, Udalaren, La Salle-Berrozpe ikastetxearen eta herriko hainbat kolaboratzaileen gertutasuna sentitzen dugu, eta horrek aurrera egitera bul-tzatzen gaitu. Aiurri astekariak egin digun elkarrizketa hau probestuz, gonbidapena luzatu nahi nieke andoaindarrei, hala nahi badute behintzat, gure proiektua ezagutzeko eta guregana hurbiltzeko anima daitezen.



Sorabillako jaietan ospatu zen “Ate irekiak” egunean herritar ugari hurbildu zen itxuraz berritu den erretoretxeko jardinerari.

KALERATZEAK STOP ELKARTEAREN PRENTSAURREKOA

Familia baten kaleratzea saihestu dute Andoainen

Kaleratzeak Stop elkarteak prentsaurrekoan jakinarazi zuenez, Popular Vasconia banketxearekin akordio batera iritsi da herriko familia batek kale gorrian geratzeko aukera saihestuz.

Bestalde, elkarteak adierazi duenez, Andoaingo Udalari etxebizitza hutsei buruzko plangintza berritzailea proposatuko dio datozen asteetan.



Pozik agertu ziren **Stop Desahucios - Kaleratzeak Stop** plataformako kideak urriaren 2an Udaltzarraldi aretoan eskaini zuten prentsaurrekoan. Izan ere, Gipuzkoan lehenengo aldia da banku batek dazio ordainketa onartzen duela; alegia, bezero batek Popular Vasconia banketxearekin daukan zorra etxebizitza ematearekin kitatu ahal izango du.

Egoera ekonomiko larrian dagoen familia horrek bere etxean jarraitu ahal izango du hiru urtez, 380 euroko errenta ordainduz. Epe hori pasata, etxea banketxearen esku geratuko da. Eta hortik aurrera, gero geroakoak. Gutxienez egungo egoera jasanezina arindu ahal izango dute. Ez da eta gutxiagorako. Gurasoek 720 euroko diru sarrerak zituzten, subsidioak eta Caritasek emandako laguntza batuta. Eta mailegua, aldiz, 900 eurokoa. Ezinezko egoera.

Eta hiru urte barru zer gertatuko da? Etxea ez da familiarena izango, beraz, etxea utzi behar dute. Bestelako egoeran egongo dira, familiakide bat ordurako jubilatu egingo baita eta horri esker diru sarrera handiagoak izango dituzte.

Banketxeak dazio ordainketa onartzean familia ez da kale gorrian geratu eta unean uneko arazo larri bati irtenbidea aurkitu zaio.

Andoainen lortu duten akordioa aintzindaria omen da Gipuzkoan osoan. Onuraduna hiru kidez osaturiko Andoaingo familia bat da. Gurasoek eta adin nagusiko semeak, gurasoek langabezia agortuta zuten eta ezi-



Stop Desahucios - Kaleratzeak Stop plataformako kideak aurreko ostegunean egin zuten agerraldian.

Gurasoak langabezian, eta semeak soldata kobratzeko arazoekin

Anonimotasuna gorde nahi duen familiaren kasua

Anonimotasuna gorde nahi duen familia horren ezaugarriak azaldu zituen Marcelino Garciak: “50-60 urteren bueltan dabilta familia horretako gurasoak. Semea, adin nagusikoa da. Esan behar da orain bost bat urte, familiak ez zuela estuasun ekonomikorik bizi. Hirurak zeuden lanean, nominarekin. Laster, ordea, aitaren lantokia itxi egin zuten, ama lanik gabe geratu zen eta semearen lantokiaren egoera ere

gaiztotzen joan zen, soldata kobratzeko arazoak edukiz. Denbora aurrera joan ahala, gurasoei zegozkien langabeziariak xahutzen joan ziren. Horrela, 2011n banketxearekin maileguaren ordainketa bernegoziatu behar izan zuten, etxeko hipoteka ordaintzen jarraitu ahal izateko. 2036. urtera arte luzatuko zen mailegua, semea abalista izanik”.

2014ra iritsita, miseria egoeratik gertu zeuden. Gurasoek

nezkoa zitzaien maileguari aurre egitea. Ezintasun egoera larri horretan familiak Stop Desahucios plataformarengana jo zuten.

Plataformak bankuaren eta hipotekak kaltetutako familiaren arteko bitartekari lanak egin ditu: “Negoziatuta prozesua gogorra izan da banketxe horrekin, baina azkenean lortu dugu Andoaingo familia baten kaleratzea galeratzea”, adierazi

zuen arlo juridikoa jorratzen duen Marcelino Garcia plataformako kideak, “dazio ordainketa aplikatzea erabaki da, hiru urtera arte luza daitekeen alokairu sozialarekin; aldi berean, semeak abalista izateari utzi dio”. Kezka edo beldur bat gutxiago gurasoen semearentzat.

Negoziazioaren inguruko xehetasunak eman zituen Garciak: “Banketxeak bide judiziala zabaldu zuen eta horrela ja-

426 euroko subsidioa eta Caritasek laguntzarekin 720 euro kobratzen zuen hilabetea. Maileguari zegokion kuota 900 eurokoa zen, “egoera jasangaitza egin zitzaion familiari: mailegua ezin ordaindu eta kaleratze prozedura abian jartzeko arrisku bizian. Gauzak horrela, plataformaren bitartekaritzara jo zuen familiak”. Stop Desahucios taldeari esker, kale gorrian geratzea saihestu dute.

rraituz gero desahuzioa berandu baino lehen iritsiko zen. Bitartean etxebizitza tasatu egin zuen 125.000 eurotan. Familiak zuen zorra, aldiz, 157.000 eurokoa zen. Stop Desahuciosetik negoziatzea eskatu genion. Banketxeako ordezkariari adierazi genien maileguak gehiegizko klausulak zituela, eta epaileren batek arrazoia eman zieziaiekeela. Banketxeak orduan akordio ekonomiko ba-

Familiak hainbat abantaila lortu ditu: ez dute kale gorrian ipiniko, zorra desagertu egin da, semeak abalista izateari utzi dio eta hiru urtez alokairu sozialaren baldintzatan bizikodira. Kontrara, etxebizitza galdu dute.

tera iristeko borondatea adierazi zuen, baina horretarako proposatzen zituen kopuruak onartezinak ziren. Proposamen ezberdinak trukatu ondoren, azkenean banketxeak dazio ordainketaren aukera ontzat eman zuten”.

Plataformak poza agertu zuen akordioa sinatu izanagatik. Baina aldi berean, egoeraren xelebrekeria aipatu zuen: “paradoxikoa da zure etxea galdu behar izatea bankuarekin daukazu zorra kitatzeko, eta horrexegatik lasaitasuna eta are gehiago poza sentitu behar izatea”. Gaur gaurkoz familiak hainbat abantaila lortu ditu: ez dute kale gorrian ipiniko, zorra desagertu egin da, semeak abalista izateari utzi dio eta hiru urtez alokairu sozialaren baldintzatan biziko dira. Kontrara, etxebizitza galdu dute.

KRITIKAK KUTXABANKI

Marcelino Garcia plataformako kideak Popular Vasconia banketxearen jarrera azpimarratu zuen, “uneoro errespetua adierazi dio familiari eta bizi duten egoera larriari, eta akordioaren aldeko borondatea erakutsi du”. Guztiz kontrako adibidetzat jo zituen Kutxabank eta Caixa-bank erakundeena, “erabat kritikagarria da banku bihurtzeko prozesuan dauden bi aurrezki kutxa horien jarrera. Euskadin, egun, kaleratzearen rankinean lehenbizikoak agertzen zaizkigu. Ezin dugu ulertu zertan dabil-tzan Kutxabankeko administrazio kontseiluetan parte hartzen duten alderdi politiko eta sindikatuak. Ez dirudi herritarren ordezkariak direnik”.

Andoaingo Guduaren dokumentala ikusgai



Ikusle ugari bertaratu zen Basteroko ekitaldi aretora.

Urriaren lehenean Larramendi Bazkunak iaz arrakasta handiz antolatu zuen “Andoaingo Gudua”ren bideo emanaldia eskaini zuen Basteron. Bideo emankizunak bi atal izan zituen, batetik, ikuskizunaren bideoa eskaini zuten. Eta, bestetik, muntaiaaren antolaketari buruzko alde ezezaguna edo *making of-a*. Ikusle ugari hurbildu zen Basterora, eta haiei guztiei Jon Unanue Larramendi Bazkuno lehendakariak hainbat azalpen eskaini zizkien. Nabarmenena, datorren urteko irailean guduaren bigarren antzezpena egiteko iragarpena. Andoainek herri izaera lortu zuen 400. urteurrenean egoki ikusi dute antzezpena errepikatzea. Indar handienak horretara bideratuta daude.

Ziurrenik Andoaingo Guduaren edizio berria 2015eko irailaren 11n eta 12an ospatuko da. Ez da, beraz, egun bakarreko kontua izango. Lehen egunean baserrien erreketa eta liberalen iritsiera antzeztuko dute. Eta irailaren 12an gudu bera antzeztuko dute Andoaingo kaleetan.

Lehen ediziotik hona hobe-



Kamisetak eta laminak salgai daude.

kuntz teknikoak egiteko aurreikuspena egin dute, hala nola megafonia herrian barrena zabaltzea edota antzeztutako atal gehiago eskaintzea. Guduaren bigarren edizioa burutzeko finantzazioaren beharra adierazi zuten, Basteron egin zuten agerraldian. Horretarako kamisetak eta laminak salgai jarri dituzte.

DVD-A SALGAI

Bideoa dagoeneko Andoaingo Stop, Delgado eta Ernaitza liburudendetan dago salgai, baita Iñaxi gozotegian ere eta Aiurri aldizkariaren Arantzibia plazako egoitzan. Bideoaren salneurria 10 eurokoa da, eta lortzen den diruaz irabaziren bat egin nahi da datorren urteko antolakuntzari neurri batean aurre egin ahal izateko.

Andoaingo gudariak gogoan izan zituzten



Euskal gatazkan hildako hainbat herritarren memoria gogora ekartzeko herritar talde batek memoriaren ibil-

bide modukoa egin zuen irailaren 28an, Euskal Herri osoan gudarien eguna ospatzen den egun berean.

Mahai-ingurua Koldo Mitxelena, euskaltzalea gogoan harturik

Martin Ugalde gogoan, haren urteurrenean

Martin Ugalde Andoaingo idazle eta seme kutuna hil zela hamar urte bete direnean, lau euskal idazle ezagunek gogoan izan zuten Koldo Mitxelena kulturgunean egin zen ekitaldian. Juan Mari Torrealdai, Anjel Lertxundi, Koldo Izagirre eta Kirmen Uribe idazleek Martin Ugaldere nortasuna ikuspegi ezberdinetatik aztertu zuten, Martin Ugaldere buruzko doktore tesia egina daukan Larraitx Ariznabarreta irakasleak aurkeztuta.

Torrealdai Ugaldere integratzaile joera nabarmendu zuen. Argi eduki omen zuen beti “dagoen gizartean, integratzea eta daukan guztia ematea” dela pertsona bati dago-kiona. Uribek Ugaldere narraitibagintza aztertu zuen; bere ipuingintzak erabat erakartzen zuela aitortu zuen, gauzak kontatzeko zehaztasuna eta elipsiak nabarmenduz.

Izagirrek bere aldetik Martin Ugalde 1960ko hamarkadan euskal giro abertzalean eta euskaltzalean sortu zen mugi-



Anjel Lertxundi, Joan Mari Torrealdai eta Koldo Izagirre Koldo Mitxelena.

mentu modernoan txertatu nahi izan zuen.

Azkenik, Lertxundik idazle andoaindarraren ibilbidearekin lotuta agertzen diren ahaztuera ugariak azpimarratu nahi izan zituen. Venezuela zein euskal gizarteetako baztertuenak: gazte marjinalak, 36ko gerra galdu zutenak...

Bere kontakizunetan euskal exiliatuen drama edo adinez aurrera doazen helduen gorabeherak aipatzeko joera; edota euskaldunok ahaztuta daukagun

geure historia edo kultura plaza-ratzeko saiakera. “Herri honetako agintari eta kultur giroko jende askorentzat, Martin Ugalde ahaztu bat izan zen eta da. Behintzat, hemen gaude injustizia hori pixka bat kitatzeko”. Horrela amaitu zuen Anjel Lertxundi idazleak bere mintzaldia, mahai-inguruan bildutako parte hartzaile guztien sentimendua azaldu nahian bezala.

Mahai-inguruak eman zuena, luze eta zabala, aiurri.com webgunean irakurgai dago.

Udalak urriaren 16rako bilera batera deitu ditu auzotarrak

Leitzaran landa eremuko plan berezia hizpide

LKS ingenieritza etxeak 2014ko uztailan Leitzaran Landa-Parkeko esparruaren antolamendu plan berezia aurkeztu zuen udaletxean.

Uda igarota, Udalak plan horren edukia aurkeztu nahi die Leitzaran landa eremuaren inguruan bizi diren auzotarrei. Horretarako bilera deitu du-

te udaletxeko batzar aretoan, datorren urriaren 16rako. 18:30etan hasiko da bilera hori. Planaren inguruko informazio zehatza eskainiko dute.

Urrian eta azaroan bilera sorta 16-29 urtekoei zuzenduta

Parte hartze bilerak

Asteazken honetan abiatzekoa zen “Gazteok hartu hitza!” parte hartze prozesua Andoain, urrian eta azaroan izango dena. 16 eta 29 urte bitarteko gazteek herriari buruzko ikuspegia azaltzeko aukera izango dute, eta baita haien gogoan eta egitasmoen berri emateko ere. Udalak gazteekin hartu-emanak izateko bide berria arakatu nahi du, eta horretarako parte prozesua interesgarria izan daite-

ke. Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleak izan ziren lehen bilerako protagonistak. Datorren astean bi bilera berri egingo dituzte, urriaren 14an eta 15ean. Lehenengoa Gazte-txean egingo dute, Gazte Lokaleko eta Gaztetxeko kideei zuzenduta. Bigarrenkoa deialdi irekia izango da, Basteron.

Aztiaker etxeko bi dinamizatzailek bideratuko dute bilera sorta hori. Besteak beste, Uda-

lak gazteriarako dituen hainbat diru partida erabakitzeko baliagarria izango da urrian abiatu den bilera sorta. Azaroan proposamenak aztertu eta balorazioa egingo dute.

Bilera sorta honetarako Udalak gutun bana igorri die Andoain bizi diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteei.

Blog bat zabaltzeko dute ekimen honetarako.

partehartu.wordpress.com

Mintzalagun edota Gurasolagun ekimenen aurkezpena

Euskararen erabilera areagotzeko ekimenak



Estitxu Garmendia eta Mailu Arruti antzezleak eta Gregorio Olasagasti ipuin kontalaria. Bi saioak ikusgai aiurri.com gunean.



Mintzalagun eta Gurasolagun izeneko kanpainen hasiera ekitaldia ospatu zuten Bastero Plazan, aurreko larunbat eguerdian. Andoaingo Udaleko euskara zerbitzuak eta AEK euskaltegiak elkarlanean antolatu zuten jaialdia. Pasta eta kafe baten inguruan, euskara bereganatu nahian dabilzanak eta horiei bultzada ematen dieten euskaldun boluntarioak bildu ziren.

Kris Bernal Andoaingo AEK euskaltegiko irakasleak aurkezpenean adierazi zuenez, Mintzalagun eta Gurasolagun 2011n jarri ziren abian, euskara kaleratzerako orduan lagungarri izan zitezkeelako, “ahalegin txikia eskatzen zaio bi ekimen horietan parte hartzen duenari, astean ordubeteko de-

dikazioa. Horrekin, euskaldunek euskara gehiago erabiltzea kalean eta aldi berean euskara ikasleak inguru euskaldunago bat topatzea eta berak ere euskaraz mintzatzeko aukera gehiago edukitzea lortzen da”.

Bernalek gogorarazi zuenez, bi ekimenak martxan diren arren, irekita jarraitzen du ize-na emateko epeak. Nahikoa da Andoaingo Udalararekin edota AEK euskaltegiarekin harremanetan jartzea horretarako.

Ainara Rodriguez euskara zinegotziak kale erabileraren inguruan Andoaingen egin den azken inkesta hartu zuen gogoan, ekitaldian zehar: “inkesta, euskara %18a erabiltzen dela adierazten digu, eta benetan datu kezagarria da hori. Izan ere, andoaindarrak datu hori baiko-rrago bihurtzeko gaitasuna ba-

dugu. Mintzalagun eta Gurasolagun bezalako ekimenak gaitasun horren adierazleak direla iruditzen zait”.

Ekitaldian zehar, antzerkiari eta ipuinari lotutako ikuskizunez gozatu ahal izan zuten bertaratutakoek.

Estitxu Garmendia eta **Mailu Arruti** antzezleek formato txikiko antzerki lana eskaini zuten. Ironia erabiliz, euskararen ikasketan gertatzen diren pasadizoetan oinarritu zuten antzezlan, ikusleen barreak eraginez.

Gregorio Olasagasti mintzalaguna den aldetik, ipuin kontalari gisa deskubritzeko aukera ere eman zuen ekitaldiak. Euskara aberatsa eta hitz jario arina dauka, bizia, eta kontalari-tzaren bidetik jarraitzen badu, zer esana eman dezake.

Oria ibaiaren garbiketa

Postontzia

Andoaingo Eguzki taldea

“Igaro dira Oria ibaia kutsatuenean zerrendan agertzen zeneko garaia, bukatu ere aparrez gainezka zegoeneko, aparrai ibai inguruko etxeetara iristeraino... Deskribapen edo azalpen horrek beste garai batekoa dirudi, zorionez. Baina horrek ez du esan nahi Orian dena eginda dagoenik, goi mailako ura duenik edo ibaia- ren ibilbidean zikinkeriarik ez dagoenik, ez horixe!

lazo maiatzean garbiketa egin genuenetik aurrerapauso batzuku eman dira Oria Erdialdeko inguru honetan:

Adunako araztegia martxan jarri da eta bertan Alegitik Andoaingerainoko herri gehienetako urak bildu eta arazten dituzte bertan.

Andoaingo ur zikinen zati bat bertara eramaten da.

Ondorioz, uraren kutsadura murriztea

eta kalitatea handitzea dena bat izan da, nahiz eta Europako Elkarteko plangintzekiko hamar bat urteko atzerapenarekin iritsi.

Baina, genion bezala, asko dago egiteko oraindik. Egun gure ur zikinen erdia -etxean, lantegietan, kirol instalakuntzak...- gutxi gora-bera inongo tratamendurik gabe doa ibaira. Hau da, egun Oria eta Leitzarango ibaiak kutsatzen jarraitzeaz gain Europako Elkartearen arauak ez dira betetzen. Gogoan izan behar baitugu 2005erako ur zikin guztiak arazte-gira bidali behar genituela. Araudia ez betetze honen arduradunak, nahiz eta denek ez duten ardura maila bera, Eusko Jaurlaritza, Aldundia, Gipuzkoako Ur Partzuergoak eta Udala bera dira azken hamar-hamabost urtetan beharrezko diren inbertsioak ez egiteagatik.

Dena dela, Eguzkitik ardura guztia administrazioaren esku ezin dugula utzi

pentsatzen dugu. Izan ere, ibaia nahiz ibai ertzak, txukun eta garbi mantentzeaz denok arduratu behar dugu eta hori sarritan ahaztu egiten zaigu; hor ditugu hainbat asialdirako gune: Olazar, Otita... ez ditugu oso ondo zaintzen, baina bereziki Leitzarango putzuak bezala ezagutzen duguna aipatu nahiko genuke; inguru hori Leitzarango biotopo babestuen barruan dago eta udan zenbait garaitan itxura lotsagarria edukitzen du han batzen diren paper, plastiko eta bildukiekin.

Denon lanarekin, elkarlanarekin eta bereziki auzolanean egindakoarekin, zenbait arazo puntual konpondu ditzakegu- la uste dugu. Eta bereziki andoaindarraren kontzientzietan eragin nahi genuke.

Hori dela eta beste behin ere, ibai garbiketarako deia egiten diogu herritar oro- ri, urriaren 11n Allurralde kiroldegian atarira etor daitezen arratsaldeko 15:30etan ibai garbiketari ekiteko”.

Herrien arteko jaia ospatu zuten Nafarroa plazan



Triana elkarteak abesbatzako kideak emanaldia eskaini ondoren.

Andoaingo Triana eta Hogar Extremeño elkarteek elkarrekin “Herrien arteko jaia”ren edizio berria antolatu zuten aurreko larunbatean, Nafarroa plazan. Gastronomiaz eta folkloreaz gozatzeko eguna izan zen.

Gonbidatuen artean Iruñe-

rritik etorri zen Extremeño taldeko musikariak eta dantzariak aipa daitezke, baita flamenko kultura ekarri zuen Errenteriako taldea ere. Andoaingo partaideen artean Triana taldea eta Merche Montes kantaria igo ziren taula gainera.



Triana kantuan eta plazan jendea dantzan. Argazki gehiago flickr gunean.



Triana elkarteak egoitzaren atarian gastronomia postua ipini zuten.



Hogar Extremeño taldeko kideek euren lurreko elikagaiak eskaini zituzten.



FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

Kataluniatik Euskal Herrira

Aurreko zutabearen Eskoziatik abiatu eta Kataluniatik igaroz, Euskal Herrira iristekoa nintzen une honetan ezen momentu honetan hirurek baitute komunean zerbait, erabakitze eskubidea gauzatu nahi dutela alegia. Zutabearen parterik zabalena Eskoziak eraman zuen. Eskoziatik Kataluniara pasa nintzen, han prozesua pilpilean eta gori-gori baitago. Hemengoari ere eskaini nahi nion zertxobait nahiz eta oraindik ez dakidan hastear ere ote dagoen; baina beti da interesgarria errespetuz hausnarketak egin eta azaltzea. Baina, zutabeak ez du askorako ematen eta azkenekoan gogoz geratu nintzen. Dena den, Kataluniakoak hemendik azaroaren 9ra arte zeresana emango du, data hori baitago jarrita herri galdeketa egiteko.

KATALUNIAKOA

Nire azken zutabetik hona hainbat berri eman dira Katalunian eta, konkretuki, Kataluniako parlamentuan. Mas presidenteak sinatu zuen gehienegoz onartutako kontsulta legea; batzorde bat ere sortu dute kontsulta hori behar den moduan garatzeko eta aldeko diren alderdiek goi mailako bilera bat egin dute guzti hori zer nola kudeatu aztertzeke. Ez baitaukate batere erraz. Masen sinadurari berehala erantzun dio Gobernuak Konstituzionalean helegitea aurkeztuz. Eta, bitxia bada ere, harrigarria da berez inpartziala izan behar lukeen Tribunalak Gobernuaren esku nola jarri den ikustea. Gobernuak helegitea aurkeztu eta berehala parlamentuko erabakia bertan behera uzten du. Badirudi Kataluniako parlamentuak bere aldetik Konstituzionalaren erabakiari helegitea aurkeztuko diola. Zer gutxiago! Govern delakoak hasiera batean uko egin zion azaroaren 9ko propaganda instituzionala egiteari.

Alderdi formal horien azpian, ordea, nire irudiko, nahaste handia dago. Urak oso nahasiak datoz. Galdera asko aireratu da, esaterako, debekuaren gainetik gauzatuko al da kontsulta? Erabakitze eskubidearen alde dauden alderdien artean ba al dago adosta-

sunik data hori gauzatu eta mamitzeko? Irakurrita dudanez, alderdi batzuk, tartean ERC eta CUP desobedientziaren aldekoak dira. Ez da hain garbi ikusten CIU, Masen alderdiak zer nolako jarrera defendatzen duen. Nire irudiko, Kataluniako Gobernuak ez du ozen eta garbi esan nahi zein jarrera hartuko duen Espainiako Gobernuaren baimenik gabe; beste alderdiek defendatutako jarrerari, desobedientziarena alegia, arriskutsua deritzo. Ulgarria, bestalde, gobernuan dagoen alderdi bategan. Honen haritik, hil honen hiruan kontsulta defendatzen duten alderdiek goi mailako bilera ospatu zuten zer nolako jarrera hartu erabakitzeke, Espainiako Gobernuaren oztopoak ikusita. Dirudienez, bilera ez da erraza izan nahiz eta kanpora begira batasun itxura eman nahi izan. ERC ez da gehiegi fio Masen gobernuaren jarrerarekin. Epela, hotza deritzo. Convergencian, bestalde, nahaspila nabarmena dago. Nik ez dut batere garbi ikusten, baina denborak esango du batasun itxura hori mantentzen den ala ez.

Alderdien arteko gorabeherak, halere, ez du eraginik herri mugimenduan, luzea eta zabala baita. Izan ere, nire irudiko, mugimendu zibil hori da ekimena gauzatzeko bermerik garrantzitsuena. Zaila izanen da, mugimendu hori dena geldiaraztea.

EUSKAL HERRIA

Hemengo oraindik hastapenetan dago, baina Eskoziakoa aipatzerakoan esaten nuen hirur herrialde hauetako mugimenduak badituela puntu asko komunean. Hemen parlamentuan ponentzia bat sortu dute estatus berri hori eztabaidatu eta ahal den neurrian adosteko. Urkullu lehendakariak subiranotasuna partekatuaz, erabakitze eskubideaz hitz egin du, Konstituzioa aldatzeko beharraz ere bai. Baina ponentzia horretan oraindik alde nabarmenak daude. Ponentziak ponentzia nire irudiko herri mugimendua zabaldu, sendotu, eta bermatu behar dela erabakitze eskubidearen aldeko mugimenduaren bidetik. Hori izango da bermerik garrantzitsuena. Mugimendu honek pedagogia lana eskaini behar die herritarrei, edozein dela beren ideologia, erabakitze eskubidea eskubide demokratikoa dela adierazteko. Pedagogia horrek ponentzian eragina izanen du eta Espainiako Gobernuaren jarrera ere alda dezake. Eta hori horrela ez bada orduan desobedientzia izan daiteke erantzuna.

KIROL ALBISTEAK

330 kilometroko mendi lasterketa amaitu dute

330 kilometroko luze-
ra eta 24.000 metro
igoeratan. Ezaugarri
horiek ditu Aosta bai-
laran (Italiako Alpe-
ak) ospatzen den Tor des Geants
mendi lasterketak. Klaudio
Rezola andoaindarrak eta Txo-
min Isuntza asteasuarrak har-
tu dute parte proba beldurga-
rri horretan. Biak iritsi ziren hel-
mugara, eta fisikoki baino gehia-
go psikologikoki prestatuta
joan behar dela ziurtatu dute.

Eman itzazue lasterketan osatutako datu pertsonalak, lehenengo eta behin...

Klaudio Rezola: 800 bat korrikalari irten ginen, eta 150 orduko epea jarri ziguten. Nik 117:48:39ko denboran egin nituen 330 kilometroak, 102. sailkatuaz. Igandean eguerdiko 10:00etan abiatu eta ostiral goizaldean iritsi nintzen helmugara.

Txomin Isuntza: 100:29:26ko denbora izan zen nirea. 39. postuan, ostegun eguerdian iritsi nintzen.

Zer dauka lasterketa honek berezirik?

T.I.: Ez du zerikusirik formato ezberdinetan egiten diren lasterketekin. Ez mendi maratonekin, ezta ehun milakoe-
kin. Hau ez da batere lasterketa konbentzionala. Munduko lasterketa guztiek daukate bere xarma, baina gutxiak honek bezain paraje zoragarriak lasterketa bat antolatzeke. Oso polita da Aosta bailara. Frantzia aldeko Chamonix baino berdeagoa da eta ez horren populatua. Azken batean, non daukazu 4000 metroko gailurrak bistan dituzula korrika egiteko aukera?

Zenbat alditan esan dizute jota zaudetela burutik?

K.R.: Etzazula pentsa! Jada ezagutzen gaituzte, ingurukoak ohitu ditugu zenbaki handietako lasterketetara. Errespetatzen gaituzte, gozatu egiten dugula badakitelako.

Zer da gehiago, lasterketa ala abentura?

T.I.: Abenturatzat joko nuke



Txomin Isuntza eta Klaudio Rezola.

nik gehiago. Kiroletik gaindi dagoen zerbait. Erronka pertsonal gisa hartu behar duzu proba; zeure buruari, kapaz zarela frogatzea. Ez zoaz postua lortzera, gozatzeko asmoarekin baizik. Sufrimendua bada, baina nahiago nuke halakoak balira bizitzako sufri-
mendu guztiak!

Gorputzaldia ala psikologia dauka garrantzia handiagoa?

T.I.: Psikologia, zalantzarik gabe! Nahiko entrenatu baduzu aurrez, eta oinek, bel-
launek, azal urratuek..., errespetatzen badizute, bidean aurrera egingo duzu. Izan ere, baba alu batek dena pikutara bidal dezake karrera, nahiz eta gorputza primeran eduki. Gogorragoa da buruaren prestakuntza. Askotan zure gogoak alde batetik eta buruak bestetik esaten dizutenak ez baitute bat egiten...

Zenbat prestatu duzue gorputza hara joateko?

K.R.: Nik ez dut prestakuntza berezirik egin. Astean behin aterata naiz 50 bat kilometroko saioa egiteko mendian gora eta mendian behera korrika.

T.I.: Nik astean bospasei entrenamendu egin ditut. Bizikleta eta lasterketa, biak bateragarri egiten ditut. Egia esan, bikotea eta seme-alabak dauzkagunok, beti ibili behar izaten dugu tartetxo libre noiz topatuko, familiari lapurtzen berari dedikatu beharreko denbora... Goizean goiz, gauetan... Horrelako dinamikan sartzen garenok, esker oneko behar dugu egon familiarekin, agertzen duen eskuzabaltasun eta tolerantziazatik.

Elkarriketa osoa, luze eta zabal Aiurri.com webgunean.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



KIROL ALBISTEAK

Herrien arteko ibilbideen erabilera sustatzeko eguna

Zazpigarren edizioan jarraian, Buruntzaldeko Udalek herrien arteko ibilbideen erabilera sustatu nahi dute. Eta horretarako eskualdeko bost ibilbideetan barrena txangoak egiteko gonbitea luzatu du.

Buruntzaldeko ibilbideen eguna. 09:00-14:00.
Urriak 12, igandea

Herri bakoitzean kontrol une bat egongo da, argibideak emateko eta mokaduak eta edatekoak banatzeko.

Usurbil: Santueneako auzoan, Zorrotzeko zubiaren parean eta Aginaga auzoan, Mapil baserriaren ondoan.

Andoain: Udaletxe azpian.

Lasarte: San Pedro elizaren ondoko plazan.

Urnieta: Udaletxe azpian.

Partaide bakoitzari abiatzen denean txartel bat emango zaio, abiatzen den lekuko zigiluarekin; partaide batek bi ibilbide eginez gero, egunaren oroigarria den, bisera bat jasoko du opari.



BOST IBILBIDE EZBERDIN

ANDOAIN – LASARTE-ORIA. Koloreak, urdina eta urre zaharra; 7,9 km.ko luzera du; oinez soilik egin daiteke eta mendiko oinetakoak beharrezkoak dira.

ANDOAIN – URNIETA. Koloreak, urdina eta berdea; 4,8 km.ko luzera du; oinez edo bizikletaz egin daiteke eta kirola egiteko oinetakoak beharrezkoak dira.

ANDOAIN – USURBIL. Koloreak, berdea eta laranja; 14,9 km.ko luzera du (luzeena da); oinez soilik egin daiteke eta mendiko oinetakoak beharrezkoak dira.

LASARTE-ORIA – URNIETA. Koloreak, urre zaharra eta berdea; 3,9 km.ko luzera du; oinez edo bizikletaz egin daiteke eta kirola egiteko oinetakoak beharrezkoak dira.

LASARTE-ORIA – USURBIL-AGINAGA. Koloreak, urre zaharra eta laranja; 4,5 km.ko luzera du Santuenearaino eta 9,0 km.koa Aginaraino; oinez edo bizikletaz egin daiteke. Kirol oinetakoak beharrezkoak dira.

BUS ZERBITZUA

Bus zerbitzua jarriko dute norbera abiatu den herrira itzultzeko; zerbitzu hau erabiltzeko, derrigor, hasieran jasotako txartela zigitatuta aurkeztu beharko da. Orduategiak:

Aginaga 12:00 / 13:00 / 14:00

*Geltokia: Gasolindegia.

Usurbil 12:07 / 13:07 / 14:07

*Geltokia: San Ignazio.

Lasarte 12:15 / 13:15 / 14:15

*Geltokia: Dorretxea.

Andoain 12:30 / 13:30 / 14:30

*Geltokia: Goikoplaza atzea.

Urnieta 12:40 / 13:40 / 14:40

*Geltokia: Kioskoa.

Eskola Kirola martxan da



Ondarreta ikastetxean egin zuten lehen saioa benjamin mailako kirolariek.

Ikasturtea hastearekin batera, Eskola Kirola ekimena martxan dago. Ikasturte honetan 320 haurrek hartuko dute parte ekimenean, Aita Larramendi ikastolakoak 125, La Salle-Berrozpe ikastetxeak 145 eta Ondarreta ikastetxe publikoak 50. Allurraldetik adierazi dutenez, “taldekako kirola

letan zein banakako jardueretan trebatuko dira ikasturte guztian zehar, prestaketa saio eta lehiaketen bitartez”.

Banakako kirolen artean aukera zabala dute: atletismoa, eskupilota, pala, zesta punta, gimnasia erritmikoa, judoa, karatea, igeriketa, txirrindularitza eta golf.

Taldekako kirola, aldiz, haur guztiak hiru kirol jardueretan ikasi eta arituko dira: alebina kasuan (5.-6.mailak) urriaren 11n hasiko dira, mutilak eskubaloian eta neskak areto futbolekin, eta benjaminen kasuan dagoeneko hasi dira “Kirola Bizi” deituriko jardunaldiaren bitartez.

Agurraren lezioa

Julen Irigoyen Andoaingo Txirrindulari Eskolako txirrindulariak agur esan dio bere txirrindulari ibilbideari. Ohar polit batekin egin zuen, aste-buruan: “Atzoko karrerakin bukatutzat emanda txirrindulari bezala hamargarren denboraldia. Eta denboraldiarekin batera txirrindulari izatea ere. Urte oso politak eta asko



disfrutatu dut, lagun asko egin ditut. Mila esker urte hauek hain politak izaten lagundu didazuen guztiei!”.

Urnieta eskuz binaka

Urnieta 22-8 Azkoitia

Kadeteak, 1. maila.

Jon Alberdi-Imanol Odriozola

Gipuzkoako txapelketan bikoterik indartsuenetakoa da,

eta txapelketan aurrera egiteko aukera asko dituzte. Alberdi aurrelariak tanto ugari egiten ditu eta Odriozolak atzean lan gogorra egiten du.

Ollokira lagun arteko giroan



Andoaingo Txirrindulari Eskolako kideek denboraldiari amaiera eman zioten, Ollokira

artearte eginez. Lagunarte-ko giroan irteera ederra antolatzen zuten.

Kiroltasunaren alde



Andoaingo kirol taldeetako eta ikastetxeko ordezkariak kiroltasuna eta kirolaren ba-

loreak bultzatzeko konpromisoa sinatu zuten Basteron, aurreko asteartean.

Dream Team Urnieta

Preferentea. 3. jardunaldia:

Sanpedrotarra 1-0 Euskalduna
Hondarribia 0-5 Urnieta

Sailkapena:

1. Urnieta 9
9. Euskalduna 3

Asteburuko partidak:

Euskalduna-Allerru
Larunbata, 11.

Urnieta-Mariño

Larunbata, 11.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRA-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larremendi
Kultur Buzkaria

TOKIKOM
INISTORRA

Ekoizlea:

ERROITZ

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritza

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerrri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOANGO UDALA

URNIETAKO UDALA

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.com
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Izarne
Olano, Joxeba Lizeaga
eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta
Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.com
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com
www.aiurri.com
Lege Gordailua: SS-1078/04
ISSN: 1698-4870
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe
Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.com
Tel.: 943 300 732

Banatzailak:

Mikel Arregi
(Andoain), Gaizka
Bernardo (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia.
Huarte-Iruñea.

Agenda

URRIAREN 9TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

- “One direction, here we are”. Lehen aldiz eskainiko diete jarraitzaileei zuzeneko kontzertuak pantailan jarraitzeko aukera.
17:00, 19:30.
Urriak 11, larunbata.
17:00.
Urriak 12, igandea.
- “Tres mentiras”.
22:00.
Urriak 11, larunbata.
19:30.
Urriak 12, igandea.
19:30, 22:00.
Urriak 13, astelehena.

Urnietan, Sarobe

- “Campanilla. Hadas y piratas”.
16:00, 18:30.
Urriak 12, igandea.

Aisialdia

Urnietan

- Bosko Anitz taldearen ate irekiera ekitaldia: antzerkia, dantza, eskulanak,... Urnietako Salesiarren Bosko Antzietzeko lokalean.
15:30-19:30.
Urriak 11, larunbata.

Ikastaroak

Andoain

- Jabetze eskola: Zer egin eraso sexisten aurrean?
Irakaslea: Silvia Arevalo.
Hizkuntza: Euskara.
Data: Azaroak 4, 11, 18, 28 eta abenduak 5 eta 12.
18:30-20:00. Urigain.
Matrikula: 10 euro, Ataria.
Izen-ematea: Urriak 31.

Erakusketa

Andoain, Bastero

- Patxi Laskarainen eskutik, azaroaren 8ra arte.
Astehelenetik ostiralera:
18:00-20:00.
Larunbatetan:
10:30-13:30 / 18:00-20:30.

Azoka

Andoain, Irunberri

- Euskal garagardo azoka.
Urriaren 9tik 11ra.
Lorrazak taldea zuzenean arituko da urriaren 10ean.

Xoxoka

Urnietan

Ostiraletik igandera karpa jarrita izango da Xoxokan. Eta berogailua afaltzeko garaian.

Urriak 10, ostirala

18:00 Segapustua: Julen Gabirondo eta Mikel Garaialde, Suharri Irazustabarrena eta Iñigo Merkaderren aurka.

20:30 Bertso afaria Xoxokako plazan, Amaia Agirre eta Iker Zubeldiarekin.

01:00 Nonnahi taldearekin erromeria.

Urriak 11, larunbata

11:00 Hamaiketako Xoxokako eskolan. Mikel Artola eta Adur Gorostidi bertsotan.

11:00 Puzgarriak.

15:00 Mus azkarra Xoxokako eskolan.

16:00 Puzgarriak.

17:00 Gorritiren animaliak.

19:00 Toka lehiaketa.

20:30 Arkume jatea Xoxokako plazan.

00:30 Gaupasa: Laiotz.

04:00 DJ Oattolo Xoxokako eskolan.

Urriak 12, igandea

12:30 Meza nagusia eta ondoren Egape dantza taldearen saioa.

17:00 Kirol lehia: Ezkonduak / ezkongabeak.

18:00 Sagardo probaketa.

20:30 Jaiaren amaiera.

Pailazoak

Andoain, Bastero

- Poxpolo eta konpainiaren ikuskizun berriena.
17:00. Auditorioa.
Urriak 19, igandea.

Gazteak

Andoain

- “Gazteok hartu hitza!” bilera sorta urrian eta azaroan.
Gazte lonjetako erabiltzaileei eta Gaztetxeko kideei zuzendutako bilera:
18:30 Gaztetxea.
Urriak 14, asteartea.
Deialdi irekia:
18:30 Bastero.
Urriak 15, asteazkena.
- “Gazte eguna”, Irunberri ez itxi lelopean. Egun osoko txartela salgai Irunberrin, 15 euroren truke. Eskuratzeko azken eguna, urriaren 16a. Egitaraua:
10:00 Gosaria Irunberrin.
12:30 Manifa Juanita Alkain plazatik.
14:00 Bazkaria Kale Nagusian.
17:00 Karaokea Irunberrin.
20:30 Afari merienda Gaztetxean.
21:00 Bideo emanaldia.
22:00 Ingo al deu? eta Dja Gaztetxean.
Urriak 18, larunbata.

Antzerkia

Andoain, Bastero

- Feelgood, Fran Perea aktore ezagunarekin. Gaztelaniaz.
21:30. Auditorioa.
Urriak 10, ostirala.
- Hiru, komedia Txaloren eskutik. Euskaraz.
21:30. Auditorioa.
Urriak 17, ostirala.

Jaia

Hernani, Atsegindegi

- Pausoka eguna, behar bereziak dituzten haurren alde. Tailerrak, bazkaria, pailazoak, musika....
Urriak 11, larunbata.

Deialdia

Andoain, anbulategia

- Odol emaileak.
18:30-20:30. Anbulatorioa.
Urriak 14, asteartea.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Zorionak Beñat, zure hamabigarren urtebetetzean, urriaren 13an. Beste urte polit bat opa dizugubihotzez. Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Ibaiek 7 urte beteko ditu urriaren 14an. Bere aitak, Ikerrek, urriaren 5ean eta 12an izeba Olaiak. Etxekoak.

URNIETA

ZORIONAK



Urriaren 18an Ametsek 9 urte beteko ditu. Zorionakaitaeta amaren partetik, guapiximo!!!! Ondo pasa!

URNIETA

ZORIONAK



Maren Aranburu Ugaldek 5 urte beteko ditu urriaren 17an. Jarraitu beti bezain alai! Muxuak, etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Unai Escribe Aguirrek urriaren 30ean 2 urte beteko ditu. Zorionak etxeko txikiari eta muxu handi bat denon partez.

ANDOAIN

ZORIONAK



Naroak urriaren 9an 12 urte bete zituen. Muxu asko etxekoan partez. Zure eguna ondo pasazenuelakoan.

URNIETA

ZORIONAK



Aner Lopetegi Zatarainek abuztuaren 10ean 6 urte bete zituen. Unai Zatarain osabak urriaren 13an urteak beteko ditu. Ondo-ondo pasa anaia, lehengusu, seme eta etxeko guztien partetik.

ANDOAIN

Aiurri diseinua@aiurri.com

San Esteban erretegiak ateak itxi zituen igandean



Duela 41 urte, San Esteban egunez erretegia ireki zuten Goiburun. Ondorengo urteetan lan eta lan aritu dira Juan Lopez de Munain eta Mari Karmen Txapartegi senar-emaztea. Erretiroa hartzeko garaia iritsita, ordea, jatetxearen ateak ixtea erabaki zuten. Igandean itxi zuten, etxekoak eta lagu-

“Esker ona adierazi nahidizuegu azken aste hauetan agurtzera etorri zaretenoi eta 41 urte luze hauetan bezero izan zareten guztioi. Mila esker”

nak bertan zirela. Merezitako atseden hartuko dute aurrerantzean.